

GETXO. Sanitas enpresegaz hitzarmena sinatuko dau, egunotan

Gurutze Gorriak bat-bateko arreteak eskaini ahalko dau

Kanpadenda puzgarria erabiliko dau istripu eta ezbeharren lekuan



VERONICA MUÑOZ

Kanpadendeak 42 metro koadroko eremua dauka, oinarritzko osasun zerbitzua emoteko tresnakaz.

Veronica Muñoz |

Ezbeharra gertatzen diran lekuetan zauritu larriak hartzeko, eta ospitalera eroan baino lehenago oinarritzko osasun zerbitzua emoteko aukerea eukiko dau aurrerantzean Uribe Aldeko Gurutze Gorriak. Horretarako kanpadenda puzgarria eskuratu dau erakundeak, Sanitas enpresegaz sinatutako hitzarmenaren bidez.

Kanpadendeak 42 metro koadro dauka, eta barruan zortzi zauritu hartzeko lekua dauka. Ospitaletan eskaintzen dabezan oinarritzko zerbitzu medikuak emon ahal izango dabez Gurutze Gorriko medikuek eta boluntarioek kanpadenda barruari esker. Egoera larriari da-

gozan zaurituei oinarritzko laguntzea emon ostean, ospitalera eroango dabez.

Zauritu asko eragiten dabezan ezbeharretan erabiliko dabe zerbitzu barria, istripu larrietan eta hondamendi handietan batez be. Horrezaz ganera, jente asko erakarten daben ekitaldietan be erabili ahal izango dabe, eskualdean antolatzen diran azoketan, jaialdietan eta beste hainbat ekitalditan.

Bizkai osoan erabili ahalko dabe

Uribe Aldeko Gurutze Gorriko egoitzan gordeko dabe kanpadenda-ospitala, Ereagako Arri-luzen. Preminazkoa izan ezke-ro, istripua edo ezbeharra izaten dan lekura eroango dabe. Eskumaldean eta behar izan ez-

keru, Bizkaiko edozein lekutan be erabiliko dabe zerbitzu barria, Juan Antonio Basagoiti Uribe Aldeko Gurutze Gorriaren zuzendariak atzo azaldu ebanez.

Egitureari esker, kanpadenda eroatea oso erreza da, eta holan arin helduko dira osasun zerbitzuak ezbeharren lekura, Gurutze Gorriko arduradunek atzo azaldu ebenez. Horrezaz ganera, pisu arina euki arren, kanpadendearen egiturea finkoa da.

Gertaerea izan dan lekura heltzeko behar dan denporea kontuan hartu barik, 20 minutuan eregiten da kanpadenda puzgarria. Atzo aprobeka egin eben, eta azkar-azkar ipini eben kanpadendea Arri-luzeko egoitzaren aurrean.

Nudismoa debekatzeko dekretua bertan behera ixten dauen mozinoa onartu egin dabe

V.M. |

Udalerriko hondartza eta landetan nudismoa egitea debekatzeko dauen dekretua bertan behera lagateko mozinoa onartu eben atzo, Getxon izandako azken udalbatzean. Sozialistek aurkeztu eben proposamena, eta Batasuna eta Alderdi Popularraren aldeko botoak onartu egin zan.

Halandabe, "epaile batek legez kanpo dagoela esan arte dekretuak indarrean" jarraituko dauela esan eban Iñaki Za-

rraia alkateak. Oposizioaren taldeak "lasai berba egiteko" asmoa azaldu eban alkateak, "guztionean artean arazoa konpontzeko erabagiak hartu ahal izateko".

Agurtzane Ezkerraren baldintzapeko askatasuna

Beste alde batetik, Agurtzane Ezkerra euskal preso getxotarraren baldintzapeko askatasuna eskatzeko mozinoa aurkeztu eban Batasunak atzoko udalbatzean. Aurrera atara zan mozinoa, EAJ-EA alderdiek

osotzen daben gobernu taldearen aldeko botoei esker. Popularrak aurkako botoa emon eben, eta sozialistek, barriz, ez eben botorik emon gura.

Azkenik, Eudelek (Euskal Udalen Mankomunidadea) bultzatutako bizitza eskubidearen aldeko manifestua sinatzea erabagi eben, gobernu taldearen aldeko botoakaz. Horrezaz ganera, alderdi guztiek aldeko botoa emon eben, Emakundek tratatu txarren aurka neurriak hartu guran atara dauen manifestuagaz bat egiteko.

LAGURREAN

GETXO

'Bar Puerto' ikuskizuna eskainiko dabe iluntzeon

Euskereagaz lotutako ekitaldiak nagusi dira egunotan Getxon. Alde batetik, Euskerearen Jardunaldiak ospatzen dabilz. Eta gaur, ganera, Algortako Getxo Antzokiak *Bar Puerto* izeneko ikuskizuna hartuko dau, Topagunek antolatuta. Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Asier Oleaga, Josu Izagirre, Aitor Rubio eta Josu Zabala musikariak alkarregaz ikusteko aukera ederra izango da gaurko kontzertuan. Iluntzeko 22:30ean hasiko da, eta sarrerea 1.000 pezetan ordaindu beharko da.

Euskal dantzak, Itxartu taldeagaz

Algortako Itxartu taldeko dantzariak kalejirea egingo dabe bihar, domekea, herriko kaleetan. Eguerdiko 12:30ean urtengo dabe Cuatrocaminos kaletik, eta Basagoiti, San Nikolas, Tellagorri plaza eta Torrene kalean dantzan ibili eta gero, dantzaldia eskainiko dabe Algortako metro geltokiko plazan getxotarren aurrean.

LEIOA

Euskerearen erabilera sustatzeko hitzarmenak

Euskerearen ezagutzea eta erabilera sustatzeko hitzarmenak sinatuko dauz eguerdion Udalaren Euskera Zerbitzuak Leioako 71 taldeagaz. Horreen arabera, eta talde bakotxean euskerearen erabilera aztertu ostean, Euskera Zerbitzuak hainbat laguntza eskainiko deusie, taldeok eguneroko jardueran euskera erabili daien: aurkezle euskaldunak, itzulpen beharrak eta abar.

AGENDEA

GETXO

Euskerearen Eguna: Umeentzako jolasak eta herri kirolak gertatu dabez gaurko, Euskerearen Eguna ospatzeko egitarauaren barruan. San Nikolas plazan izango dira ekitaldiok, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Kulkil taldearen eskutik. Gazteenei dagoz zuzenduta beren beregi, eta sarrerea doan da. Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoak Getxo antzokian izango dira bihar, hiru saiotan: 12:00etan, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerea 250 pezetan dago.

MUNGIA

Diskotekea: Umeentzako diskotekea ipiniko dabe Mugire Txokoa, arrastiko 19:00etatik aurrera. Sarrerea doan da.

LEIOA

Udal egoitzetan ospakizunak egiteko aukerea eukiko dabe izateko bikoteek

V.M. |

Izateko bikoteak ospakizunak egiteko aukerea eukiko dabe aurrerantzean Leioako Udalaren egoitzetan. Ezkontza moduko ospakizunok onartzeko erabagia udalbatzarrean hartu dabe. Ospakizunok ez dira erregistro zibilean sartuko, eta beraz ez dabe legezko baliorik izango. EAJk aurkeztu eban mozinoa, eta Batasunarena izan ezik, talde guztien aldeko botoa jaso eban.

Izan be, Batasunak beste mozino bat aurkeztu eban gai horren inguruan. Izateko bikoteek udaletxean ezkontzeko aukerea eukiteaz aparte, ezkontza horreek kasu guztietan legezko balioa euki daien eskatzen eben Batasunakoek aurkeztutako mozinoan. Proposamenak baina, ez eban ganerako taldeen babesik jaso.

Holango erabagiak hartzea «ez dauka zentzun handirik», jeltzaleen eritziz, Eusko Jaurlaritzak gaiaren inguruan legea egitea baino lehenago. Adierazpen horreen aurrean, Batasunako zinegotziek esan eben Espainiako Gobernuak gaiaren inguruan erabagia hartu arte Jaurlaritzaren legeak ez dauela benetazko baliorik izango, eta beraz «edozein unea da ona aurrerako pausoak emoteko».

Kartelak eta trafiko seinaleak euskeraz ipinteko eskatu dau barriro EHEk

V.M. |

Karteletan eta trafiko seinaletan euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen dirala salatzen dabil Leioako Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) azken urteteoan. Orain urte bi, egoera aldatzeko neurriak hartuko ebezala esan eben Hizkuntza batzordeko ordezkariak, baina, EHEek salatu dauenez, orain arte ez dabe ezer egin.

Hori dala eta, egunean izandako udalbatzean egoera aldatzeko preminazko neurriak hartu daiezan eskatu eban barriro euskerearen aldeko taldeak. Euskerearen normalizazioa lortzeko asmoz, proposamena sartuko dabe Leioako erregistroan, eta horren bidez zera eskatuko deusie Hizkuntza eta Hizkuntza batzordeari: euskera hutsean ulertu leitekezan kartelak eta trafikoa bideratzeko seinaleak euskera hutsean agertzea.